

‘Mihise Gazte Experience’

BizkaiaGara-k ekitaldi aitzindari eta berritzaile baten bitartez aktibatuko du gazteria

"Mihise Gazte Experience" 18 eta 30 urte bitarteko gazteek sortu dute, eta urriaren 28an ospatuko da Bilboko Konekta-La Perrera gunean, 11:00etatik 17:00etara. Ekitaldi honen erronka Bizkaiko gazteak topaleku eta eraikuntza kolektibo batean aktibatzea izango da, aldaketa eragiteko, hitzaldi, kontzertu, dinamika eta esperientzien bitartez.

BILBOn, 2023ko urriaren 18an – BizkaiaGara-k lurraldeko gazteak aktibatuko ditu datorren urriaren 28an, larunbata, Bilboko Konekta-La Perrera gunean (Sabino Arana kalea, 50), 11:00etatik 17:00etara. Bizkaiko gazteak aktibatzeke lehen ekitaldi hau, "Mihise Gazte Experience" izenekoa, 18 eta 30 urte bitarteko gazteek sustatu eta protagonizatzen dute, hainbat begirada eta errealitate dituzten gazteek. Hilabete luzez aritu dira lanean, elkargune eta eraikuntza kolektibo bat sortzeko. Ekitaldiak Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailaren laguntza du.

"Ekitaldia koloreen arabera seinalizatutako lau gunetan banatuko da, dibertsitate, musika, arte, adierazpen eta esperientzia kontzeptuei erreferentzia eginez; gazteek ikusarazi eta aldarrikatu nahi dituzten kontzeptuak", azaldu du Leire Ortiz de Zarate BizkaiaGara-ko koordinatzaileak.

"Maiatzaz geroztik, gazteek taldean lan egin dute, eta BizkaiaGara Faktorerik eskaini dien baterako sorkuntza-prozesuan parte hartu dute. Oso hunkituta gaude datorren urriaren 28an erakutsiko den 'mihise' handi hau sortu dutelako. Gure ustez, funtsezkoa da benetako parte-hartzea egotea eta gazteak izatea benetako protagonista, bai sortzeko eta asmatzeko prozesuan, bai amaierako ekitaldian", azpimarratu du Ortiz de Zaratek.

"Gauza bera ikusten dugu? Edo zer ikusten duzu zuk?" izenburupean, ekitaldia antolatzen ari direnek, BizkaiaGara-ren eskutik, gazteak aktibatu eta gazteak erdigunean jarri eta ahotsa eman nahi dien ekimen aitzindari honetan parte hartzera animatzen dituzte: "Esperientzia aberasgarria izan da, gazte gunek bat den ekitaldi batekin amaituko dena, non pertsona bakoitzak bere iritzia eman eta bere erara adierazi ahal izango den. Elkargune bat sortzea izan da asmoa", kontatu dute "Mihise Gazte Experience" antolatu duten BizkaiaGara Faktoreri prozesuko partaideek.





BizkaiaGara FAKTORI



Osasun mentala, kirola, feminismoa edo arrazakeria bezalako gaiei buruzko hitzaldiak, Xabi Cabrerak (Naizen/Anitzak), Garazi Sánchez surflariak, Lore More (Portugaleteko Talde Feminista) eta Khalid Allalik, hurrenez hurren, emango dituzte. Ekitaldiak aukera emango die Googaz taldearekin errealitate birtualeko betaurrekoak erabiliz esperientzia sensorial baten bidez aktibatzen, baita sormenari bide emateko ere, Selene Torrado, Leire Fresnedo eta Yara Blossomen laguntzarekin.

13:30etatik aurrera, gazteen aktibazioa La Perreraren kanpoaldean izango da, musika askorekin, ekitaldiaren talde sortzaileak aukeratuta: DJ Aner, Taghufi, Cris Orube eta XSakara taldeek "Mihise Gazte Experience" -i erritmoa jarriko diote 17:00ak arte.

"Mihise Gazte Experience" ekitaldira sartzeko, [aldez aurretik izena eman](#) behar da, lekua bete arte.

BizkaiaGara herritarren ekintzarako, boluntariotzarako eta lan komunitariorako espazioa da, eta gure lurraldeko pertsonen, erakundeen eta organizazioen zerbitzura dago. BBK, Bizkaiko Foru Aldundia eta EDE Fundazioak bultzatutako proiektua da.

Ikus-entzunezko materiala eskuragai [hemen](#).

Informazio gehiagorako:

Garazi Barriuso

komunikazioa@bizkaiaagara.eus

650207926 - 944161511

